



**HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK
DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO
ARAUDIA
EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN**

**HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN
IKASLEEI BURUZKO ARAUDIA
EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN**



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1.998

Azalpen, eskema eta eta aurkibideen egileak:

**Curriculum Eratzeko eta prestakuntzarako Euskal
Herriko Institutoa (CEI-IDC)**

H.B.B. arloa:

Rafael Mendía Gallardo
M^a Sol Gómez Güemes
M^a Dolores Damborenea Isusi
Alicia Sainz Martínez
Eduardo Ubieta Muñuzuri

Argitaraldia: 1.a
Ale-kopurua:

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena:

Fotokonponketa:

Inprimaketa:

ISBN:

Legezko Gordailua

AURKIBIDEA

Aurkezpena
Sarrera
Araudia
Hiztegi argibidea eta Siglak
Gai Aurkibidea.....

AURKEZPENA

1982an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak HEZKUNTZA BEREZIKO PLANA diseinatu zuen Euskal Autonomia Erkidegorako. Plan horrek Hezkuntza Bereziaren eremuan une hartan zeuden zerbitzuen filosofian eta antolamenduan aldaketa handiak eragin zituen.

Eskola arrunta izaki aipatutako plan horren erreferentzia-punturik garrantzitsuen, proposatutako transformazio-prozesua ahalbidetuko zuen oinarrizko azpiegitura sortu zen.

1990eko urriaren 3ko Lege Organikoa, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE), izan du abiapuntu estatu osoko hezkuntza-sistemaren erreforma orokorrak. Erreforma hori jada aipatu zen Hezkuntza Bereziaren eremuan Euskal Hezkuntza Sisteman 1982ko Hezkuntzako Plan Bereziaren eta Hezkuntza Berezikoko Batzordearen txostenean, “Eskola muinbakarra eta integratzailea” izenekoan, sakoneko filosofia eta gure erkidegoan pixkanaka ezarritako praktika gisa aldarrikatzen ziren neurrien bidez.

1993ko otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak eskola eta ikastetxeak honela definitzen ditu: “anitzta, elebiduna, demokratikoa da, euskal gizartearen zerbitzura dagoena, gizarte eta kultura mailan bere ingurunean errotua, partaidetzazkoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea.”

Ildo horri jarraiki, azken lau urteetan euskal hezkuntza-sistemaren kontsolidazio- eta garapen-prozesua gauzatu da. Berorren lehentasunetako bat ikasle guztiei eta horien artean hezkuntza-premia bereziak dituztenei kalitatezko hezkuntza eskaintzea izan da.

Nolanahi ere den, azpimarratzekoa da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakaskuntzaren kalitatea etengabe eta pixkanaka hobetzea azken helburu duen hezkuntza-politikarekin duen konpromiso etengabea eta ukaezina. Konpromiso hori orain gutxi adierazi da ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia emateko orientabideak

eskaintzen dituzten eta baliabideak antolatzen dituzten dekretu baten eta zenbait agindu eta erabakiren argitalpenaren bidez.

Legezko xedapen horietan nabarmen identifika daiteke ardatz egituratzaile gisa aukera-berdintasunaren printzipioa gauzatzeko kezka. Horrek, batetik hezkuntzan desberdintasunak, edozein jatorri eta izaeratakoak izanda ere, berdintzeko jarduketa jakin eta ausartak martxan jartzea eskatzen du, eta bestetik, ikasleen interesen, gaitasunen eta motibazioen aniztasunari egokitutako erantzuna artikulatzea.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei irakaskuntza normalizatua eta kalitatezkoa eskaintzeko prestatutako hezkuntza-sistema, zalantzarik gabe, ikasle guztiei kalitatezko irakaskuntza bermatzeko giza baliabide eta baliabide material eta tekniko gehiago eta hobeak dituen hezkuntza-sistema da. Bada, testuinguru horretan, inola ere osagarri izan gabe, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen heziketa erronka eta kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko hezkuntza-sistemak duen gaitasunaren adierazle izango da aldi berean.

Bolumen honetan Hezkuntza Bereziko ikasleei eman beharreko erantzunaren inguruan azken honetan agertu diren arauak bildu ditugu. Berorren hartzaile eskola-komunitate guztia izango da eta berori garatzea eta aplikatzea, berriz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-kalitatearen konpromisoa.

INAXIO OLIVERI ALBISU

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua.